



EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO



Dokumentu mota / Tipo de documento: OSOKO ZUZENKETA
Nori zuzendua / Dirigido a: LEGEBILTZARREKO MAHAIA

Proposatzailea / Proponente: LETE, ELENA (EA-NV)
ANDUEZA, ENEKO (ES-SV)

Data / Fecha: 2022.06.01

Espediente zenbakia / Número de expediente: 12\11\02\01\00389


Ekimenaren izenburua / Título de la iniciativa: Onkologikoaren lotura-hitzarmen berria idazteko mahai bat sortzeari buruzkoa / Relativa a la creación de una mesa con el objeto de redactar el nuevo convenio de vinculación del Onkologikoa


Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren Legearen 12. artikuluan adierazten denez, Euskadiko osasun-sistema zuzentzea, planifikatzea eta programatzea Eusko Jaurlaritzaren eskumena da, eta, besteak beste, eginkizun hauek ditu:

- Aginpidea erabiltzea dakarten esku-hartzeak, osasun publikoaren babes orokorra bermatzeko beharrezkoak direnak.
- Estaldura publikoko osasun-prestazioak jasotzeko eskubidea duten pertsonetikiko harremanak antolatzea.
- Osasun helburuak finkatzea, bai eta jarduera, kalitate eta finantzaketa helburuak ere, aurrekontu-kredituen kargura.
 - Sistemak dituen titulartasun publikoko baliabideen mugaketa

La Ley de Ordenación Sanitaria de Euskadi señala en su Artículo 12 que la dirección, planificación y programación del sistema sanitario de Euskadi es competencia del Gobierno Vasco y comprende entre otras funciones:

- Las intervenciones que supongan ejercicio de autoridad, necesarias para garantizar la tutela general de la salud pública.
- La ordenación de las relaciones con las personas que gozan del derecho a las prestaciones sanitarias de cobertura pública.
- La fijación de los objetivos de salud así como de actividad, calidad y financiación con cargo a créditos presupuestarios.
 - La delimitación estratégica del dispositivo de medios de titularidad pública con que cuenta el sistema





estrategikoa, herritarren osasun-beharren arabera.

- Osasun sistema nazionalak eskaintzen dituen oinarritzko prestazioen katalogoa zabaltzea, hala dagokionean.


Osakidetza Onkologikoarekin lotzen duen hitzarmenak Osasun Sailak bete behar dituen zuzendaritza-, plangintza- eta programazio-eginkizun horiei erantzuten die, eta honako gai hauek jorratzen ditu: zentroaren titulartasuna, zerbitzuen finantzaketa eta fakturazioa, kontrol ekonomiko eta finantzarioa, inbertsioak, zuzendaritza-organoak eta, jakina, Osakidetzatik zerbitzuetara sartzea eta zerbitzu horiek ematea.

Bere eskumenaren izaeraren eta hitzarmenaren edukia arabera, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari eskatzen zaio hitzarmen berriaren edukia lehentasunezko irizpidea izan dadila herritarrei arreta hobea ematea eta osasuna zaintzea, Osakidetza eta Onkologikoko profesional guztiek helburu horretarako ematen dituzten sinergia positiboak aprobetxatuz.


según las necesidades de salud de la población.

- La ampliación, cuando proceda, del catálogo de prestaciones básicas ofrecidas por el sistema nacional de salud.

El convenio que vincula a Osakidetza con Onkologikoa responde a estas funciones de dirección, planificación y programación que debe ejercer el Departamento de Salud y aborda cuestiones tales como la titularidad del centro, la financiación y facturación de los servicios, el control económico financiero, las inversiones, los órganos de dirección y, por supuesto el acceso a los servicios desde Osakidetza y la prestación de los mismos. En función de la naturaleza de su competencia y del contenido del convenio, se insta al Departamento de Salud del Gobierno Vasco a que el criterio prioritario del contenido del nuevo convenio sean la mejor atención a la ciudadanía y el cuidado de su salud, aprovechando las sinergias positivas que el conjunto de sus profesionales de Osakidetza y Onkologikoa aportan a este fin.



EA-NV



ES-SV

